


Zulo beltz bat eta igortzen duen zorrotada jaso dituzte irudi berean

Lehen aldiz, irudi berean jaso dituzte zulo beltz bat eta handik ateratzen den materia-zorrotada handi bat. Zehazki, M87 galaxiaren zulo beltza da, 2019an albiste bihurtu zena irudi batean ikusi ahal izan zen lehen zulo beltza izateagatik. Orain, zulo beltzaren grabitazio-indarretik ihes egiten duen zorrotada bat ere jaso dute irudi berean.



Zulo beltzaren itzala eta zorrotada erakusten dituen irudia.
ARG.: R.-S. Lu (SHAO), E. Ros (MPIfR), S. Dagnello (NRAO/AUI/NSF).

Irudia lortzeko, mundu osoan sakabanatuta dauden teleskopioen sare bat erabili dute: Global Millimetre VLBI Array (GMVA), Atacama Large Millimeter/submillimeter Array (ALMA) eta Groenlandiako teleskopioa (GLT). Horrela, aurreko irudian nabaritzen ez ziren uhin-luzerak jaso dituzte, eta horrek aukera eman die hobeto ulertzeko nolakoak diren zulo beltzak eta haietan gertatzen diren fenomenoak.

Adibidez, GMVAk orain hautemandako eraztunaren neurria aurrekoan jasotakoa baino % 50 handiagoa da, gutxi gorabehera. Astrofisikarien arabera, horrek adierazten du material gehiago ari dela erortzen zulo beltzera, orduan baino. ●

Irakurketaren, garunaren eta geneen arteko erlazioa aztertu dute

Irakurketak garunaren egitura aldaketarik eragiten ote duen eta osagai genetikoek horretan zerikusirik ba ote duten aztertu dute kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzeko BCBL zentroan. *Nature Human Behaviour* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak, eta, haien arabera, garunean aztertu dituzten 150 neurketetatik, irakurketa bederatzirekin erlazioatuta dago. Haien artean, irakurketa-sareko funtsezko eremuak daude. Are gehiago, frogatu dute osagai genetikoak eragina duela bi neurketa jakinetan: ezkerreko hemisferioaren azalera eta goiko zirkunboluzio tenporalarenean.



Irakurketak garunean zer aldaketa eragiten dituen argitu dute. ARG.: Jabego publikoa.

Ikerketa egiteko, 9-10 urteko nerabeen garunaren garapenaren datu-bilduma erabili dute (*Adolescent Brain Cognitive Development dataset*), eta, geneen, garunaren eta irakurketaren artean erlazio konplexua dagoela berrestez gain, ondorioztatu dute trebezia poligeniko partzialki heredagarria dela eta sare banatu baten mende dagoela. ●